

Lanbide Heziketarako sarbideko baldintzak

Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-ziklo batean sartzeko, baldintza hauek guztiak bete behar dira:

- a) Hamabost urte beteak izatea, edo dagokion urte naturalaren barruan betetzea, eta hamazazpi urte baino gehiago ez izatea zikloan sartzean edo dagokion urte naturalean.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloa edo, salbuespen gisa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila eginda izatea.
- c) Irakasle-taldeak gurasoei edo legezko ordezkariari Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat hastea proposatu izana.

Erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko, baldintza hauetako bat bete beharko da:

a) Gutxienez titulu hauetako bat izatea:

- 1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, betiere ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ebaluazioa gaindituta badu irakaskuntza aplikatuen aukeraren bidez.
- 2.- Oinarrizko lanbide-titulua.
- 3.- Batxiler-titulua.
- 4.- Unibertsitateko titulu bat.
- 5.- Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua.

b) Hasierako Lanbide Kualifikazioaren Programa baten derrigorrezko moduluak gaindituta izatea

c) Batxilergoko irakasgai guztiak gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria edukitzea.

d) Hezkuntza Administrazioak baimendutako ikastetxe publiko eta pribatuetan erdi-mailako zikloak egin ahal izateko berariazko prestakuntza-ikastaro bat gainditu izana.

e) Hezkuntza Administrazioak ezarritako irizpideen araberako [sarbide-proba](#) bat gainditu izana, edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.



Gainera, erdi-mailako heziketa-zikloetarako plaza-eskaera eskaintza baino handiagoa bada, hezkuntza-administrazioek ikastetxean onartua izateko prozedurak ezarri ahalko dituzte.

Goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Batxiler-titulua izatea, edo unibertsitateko titulu bat, edo Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua, edo Batxilergoko irakasgai guztiak gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria, edo goi-mailarako [sarbide-proba](#) gaindituta izatea, edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gaindituta izatea. Guzti hau, Hezkuntza-Administrazioak ezarritako onartzeko irizpideen arabera.

Goi-mailako heziketa-zikloetarako plaza-eskaera eskaintza baino handiagoa bada, hezkuntza-administrazioek ikastetxean onartua izateko prozedurak ezarri ahalko dituzte.

Lanbide Heziketan onartua izateko, BBBko tituludunak sarbide zuzena du

LANBIDE-HEZIKETAKO TITULUEN KATALOGOA

Heziketa-ziklo bakoitzeko irakaskuntzen deskribapen zehatza dagokion [lanbide-arloa](#) kontsultatuta lor daiteke.